

## **Gizarte Ekimeneko ikastetxeetako patronalek eta eskolek ez dute sinatutako greba amaierako akordioa bete nahi**

**ELA, STEILAS, CCOO, LAB eta UGT sindikatuek erabaki dute otsailean  
sinatutako akordioa betearazteko mobilizioei ekitea eta bide juridikoa  
aztertzea**

Greba amaierako akordioa otsailaren 5ean sinatu zuten Gizarte Ekimeneko ikastetxeetako mahaian ordezkaritza daukaten sindikatu eta patronal guztiekin. Akordioa indarrean dago sinatu zen unetik bertatik, hala dago espreski jasota akordioan bertan hamargarren puntuari.

Hiru hilabete igaro dira orduak. Ez da betetzen ari, ordea, patronalek horretarako borondaterik ez daukatzeko. Bitartean, langileek akordioa bete dute eta sinatu zen egunetik greba bertan beherea utzi zuten.

Akordioan jasotako edukiak aplikatzen hasteko eta edukiak hitzarmenean txertatzeko bilerak deitu behar izan zituzten sindikatuek, patronalek ez zutelako horretarako pausorik ematen. Bilera egutegi bat adostu arren, patronalek bi bilera bertan behera utzi dituzte. Gainerakoan akordioa betetzen hasteko oztopoak baino ez dituzte jarri. Patronalek akordioaren aplikazioa atzeratzea eta sinatu zen baldintza berri batzuk ezarri nahi dituzte. Horrela, besteak beste:

- Ez dira hasi 2024ko soldatak adostutako kopuruaren ordaintzen eta ez dute zehaztu noiz hasiko diren ordaintzen.
- Mahaian aurkeztutako soldata taulak behin-behineko moduan aurkeztu dituzte, Jaurlaritzaren onespenaren eta finantzaketaren menpe.
- Adostutako lanaldi murrizketak 2023-2024 ikasturtean aplikatzeko modu murriztatzailea planteatu dute.
- Irakasleentzat adostutako eskola orduen murrizketa hitzarmenaren artikulatuaren jasotzeko trabak jartzen ari dira.
- Enplegua bermatzeko birkokapen prozesuan kalte ordainak eta aintzinatasuna aitzortzeko araubide berria alde batera utzi dute; are gehiago, birkokapen prozesuaren aplikazioa bera ere kolokan jarri dute, erretiro partzialean gerta litezkeen legezko aldaketak aitzakiatzat hartuta.

Hori guztia gutxi ez balitz, patronalek hitzarmenaren proposamen oso bat ez die oraindik ere helarazi sindikatuei, eta bidalitako zatian aldebakarrez eta akordioak jasotzen ez dituen aldaketa atzerakoak txertatu nahi dituzte.

Jarrera horren aurrean sindikatuek akordioa betearazteko neurriak hartzea erabaki dute. Alde batetik, mobilizazioei ekingo diete. Horrela, datorren maiatzaren 16an elkarretaratzea egingo dute 11:30ean Kristau Eskola patronal nagusiaren Donostiako egoitzaren aurrean; eta maiatzaren 22an eskoletan elkarretaratzeak egingo dituzte. Bestalde, bide juridikoa aztertuko dute: maiatzaren 29rako adostutako negoziazio mahairako patronalek ez badute proposamenik ekartzen akordioa sinatutako baldintzetan, demanda judizialen bidea aktibatu dute sindikatuek.

Euskal Herrian 2024ko maiatzaren 13an



## **Las patronales y escuelas de los centros de Iniciativa Social no quieren cumplir el acuerdo de fin de huelga firmado**

**ELA, STEILAS, CCOO, LAB y UGT han acordado iniciar las movilizaciones y explorar la vía jurídica para hacer cumplir el acuerdo que firmaron en febrero**

El acuerdo de fin de huelga fue firmado el pasado 5 de febrero por todos los sindicatos y patronales con representación en la mesa de centros de enseñanza de Iniciativa Social. El acuerdo está vigente desde el momento de su firma, tal y como se recoge expresamente en su punto décimo.

Han pasado tres meses desde entonces, pero aún no se está cumpliendo porque las patronales no tienen voluntad de hacerlo. Mientras tanto, las y los trabajadores han cumplido el acuerdo y desde el día de la firma dejaron la huelga.

Las reuniones para comenzar a aplicar los contenidos recogidos en el acuerdo e incorporar sus contenidos al convenio tuvieron que ser convocadas por los sindicatos porque las patronales no daban el paso para ello. A pesar de haber acordado un calendario de reuniones, las patronales han suspendido dos. En el resto solo han puesto trabas para que el acuerdo empiece a cumplirse. Las patronales quieren retrasar la aplicación del acuerdo y establecer unas nuevas condiciones diferentes a las que se firmó. Así, entre otras cosas:

- No se ha iniciado el pago de los salarios de 2024 en las cantidades acordadas ni se ha determinado la fecha de inicio del pago.
- Han presentado las tablas salariales acordadas como provisionales y sometidas a la aprobación y financiación del Gobierno.
- Han planteado una forma restrictiva de aplicar las reducciones de jornada acordadas en el curso 2023-2024.
- Se están poniendo trabas a que la reducción de horas lectivas acordada para el profesorado se recoja en el articulado del convenio
- Pretenden dejar de lado el nuevo régimen de reconocimiento de antigüedad e indemnizaciones en el proceso de recolocación para garantizar el empleo e incluso comprometen la propia aplicación del proceso de recolocación con la excusa de posibles modificaciones legales en la jubilación parcial.

Por si todo esto no fuera poco, las patronales siguen sin hacer llegar a los sindicatos una propuesta completa de convenio y quieren incorporar también de forma unilateral cambios regresivos y que no recoge el acuerdo en la parte enviada.

Ante esta postura los sindicatos han decidido tomar medidas para hacer cumplir el acuerdo. Por un lado retomarán las movilizaciones. Así, el próximo 16 de mayo se concentrarán a las 11:30 horas frente a la sede donostiarra de la principal patronal, Kristau Eskola; y el 22 de mayo lo harán en las escuelas. Por otra parte, estudiarán la vía jurídica para activar la vía de las demandas judiciales en caso de que las patronales no aporten propuestas para la próxima mesa negociadora, acordada para el 29 de mayo, para empezar a cumplir el acuerdo en los términos firmados.

Euskal Herria a 13 de mayo de 2024

